



# AKTA

## Udalbatzarraren ohiko bilkura

**EGUNA:** 2005eko abuztuaren 30a.

**LEKUA:** Udaletxeko Udalbatzarraren aretoa.

**DEIALDIA:** Lehena   **HASIERA-ORDUA:** 19:00   **AMAIERA-ORDUA:** 19:30

**BERTARATUAK:**

**Alkatea**

Mirari Arruabarrena Elizalde

**Zinegotziak**

Eneko Olariaga Arruti, Ramon Etxeberria Aldaz,  
M. Jose San Sebastian Aranburu, Martxiel Genoba  
Solaberrieta, Andoni Sarasua Oviden, Noemi Ostolaza  
Arkauz, M<sup>a</sup> Elena Legarra Alfaro, Aurora Azkue Mujika  
eta Jesus Jose Rodriguez Pousa.

**Idazkari-Kontuhartzailea**

Jon Carrera Jauregi

**BERTARATU EZ DIRENAK:**

Eugenio Cotado Iturain, herritik kanpo dagoelako.



## Aztergai zerrenda

1. Onartzea, egoki bada, 2005eko uztailaren 26ko ohiko bilkurako aktaren zirriborroa.
2. Onartzea, egoki bada, Orioko Udal Planeamenduaren Arau Subsidiarioen 20 sektorearen –Aizperro– planeamenduari eta kudeaketari dagokion Hirigintzako hitzarmenaren testua eta Alkatetza-Lehendakaritzari ahalmen osoa ematea hitzarmena sinatzeko, Orioko Udalaren izenean eta ordezkari gisa.
3. Behin behineko onarpena ematea, Orioko Udal Planeamenduaren Arau Subsidiarioen Berrazterketa eta Egokitzapen Txostenari, Orioko Udalak sustatu eta Iñaki Echeverria Izaguirre Arkitektuak eta José M<sup>a</sup> Abad Urruzola Abokatuak idatzia.
4. Hasierako onespina ematea, egoki bada, Orioko Udal Planeamenduaren Arau Subsidiarioen 8. sektoreari –Munto– dagokion ekimen pribatuko Plan Partzialari.
5. Kontu ematea Orioko Udaleko Andoni Sarasua Oliben Zinegotziak karguari uko egiten dion idatzia, eta onartzea, egoki bada, uko egitearen idatzia.
6. Eskariak eta galderak.



# Esan-eginak

## **1. ONARTZEA, EGOKI BADA, 2005EKO UZTAILAREN 26KO OHIKO BILKURAKO AKTAREN ZIRRIBORROA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 baiezko boto]:

**ONARTZEA**, 2005eko uztailaren 26ko ohiko bilkurako aktaren zirriborroa.

## **2. ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDAL PLANEAMENDUAREN ARAU SUBSIDIARIOEN 20 SEKTOREAREN –AIZPERRO– PLANEAMENDUARI ETA KUDEAKETARI DAGOKION HIRIGINTZAKO HITZARMENAREN TESTUA ETA ALKATETZA-LEHENDAKARITZARI AHALMEN OSOA EMATEA HITZARMENA SINATZEKO, ORIOKO UDALAREN IZENEAN ETA ORDEZKARI GISA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hirigintzako Batzorde Informatzaileak 2005eko abuztuaren 29an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (10 baiezko boto):

**ONARTZEA** Orioko Udal Planeamenduaren Arau Subsidiarioen 20 sektorearen –Aizperro– planeamenduari eta kudeaketari dagokion hirigintzako hitzarmenaren testua eta Alkatetza-Lehendakaritzari ahalmen osoa ematea



hitzarmena sinatzeko, Orioko Udalaren izenean eta ordezkari gisa, baldintza honen arabera:

Gehienezko eperako, hau da, 2005eko irailaren 16rako, Hirigintza Hitzarmen hau sinatu ezean, 20 sektoreari –Aizperro– dagozkion hirigintza aprobetxamenduak Orioko Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioen berrikuste eta egokitzapen espedientearen hasierako onarpenaren akordioan ezarritakoak izango dira.

### **3. BEHIN BEHINEKO ONARPENA EMATEA, ORIOKO UDAL PLANEAMENDUAREN ARAU SUBSIDIARIOEN BERRAZTERKETA ETA EGOKITZAPEN TXOSTENARI, ORIOKO UDALAK SUSTATU ETA IÑAKI ECHEVERRIA IZAGUIRRE ARKITEKTUAK ETA JOSÉ M<sup>a</sup> ABAD URRUZOLA ABOKATUAK IDATZIA.**

Ramon Etxeberria zinegotziak Udalbatzar Aretoa utzi du gai honetan interes pertsonala eta zuzena duelako.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hirigintzako Batzorde Informatzaileak 2005eko abuztuaren 29an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (9 baiezko boto):

**1.- BEHIN BEHINEKO ONARPENA EMATEA** Orioko Udal Planeamenduaren Arau Subsidiarioen berrazterketa eta egokitzapen txostenari, Orioko Udalak sustatu eta Iñaki Echeverria Izaguirre arkitektuak eta José M<sup>a</sup> Abad Urruzola abokatuak idatzia, baldintza honen arabera:

Gehienezko eperako, hau da, 2005eko irailaren 16rako, Hirigintza Hitzarmen hau sinatu ezean, 20 sektoreari –Aizperro– dagozkion hirigintza aprobetxamenduak Orioko Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioen berrikuste eta egokitzapen espedientearen hasierako onarpenaren akordioan ezarritakoak izango dira.



**2.- BEHIN BEHINEKO ONARPENA EMATEA** Orioko Udal Planeamenduaren Arau Subsidiarioen Ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio bateratuaren azterketari.

**3.-** Orioko Udal Planeamenduaren Arau Subsidiarioen berrazterketa eta egokitzapen txostena Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea, behin betiko onarpena eman diezaion.

#### **4. HASIERAKO ONESPENA EMATEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDAL PLANEAMENDUAREN ARAU SUBSIDIARIOEN 8. SEKTOREARI –MUNTO– DAGOKION EKIMEN PRIBATUKO PLAN PARTZIALARI.**

Ramon Etxeberria zinegotzia berriz itzuli da Udalbatzar Aretora.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hirigintzako Batzorde Informatzaileak 2005eko abuztuaren 29an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (10 baiezko boto):

**1.- HASIERAKO ONESPENA EMATEA** Orioko Udal Planeamenduaren Arau Subsidiarioen 8. sektoreari –Munto– dagokion ekimen pribatuko plan partzialari, baldintza honen arabera:

Gipuzkoako Foru Aldundiak behin betiko onartu behar du Orioko Udal Planeamenduaren Arau Subsidiarioen berrazterketa eta egokitzapen txostena, 8. sektoreari –Munto– dagokiona.

**2.-** Espedientea jendaurrean jartzea hamabost laneguneko epean interesatuek aztertu dezaten, eta egoki bada, alegazioak aurkeztu ditzaten.



## **5. KONTU EMATEA ORIOKO UDALEKO ANDONI SARASUA OLIDEN ZINEGOTZIAK KARGUARI UKO EGITEN DION IDATZIA, ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, UKO EGITEAREN IDATZIA.**

Idatzi hau sinatzen duen Idazkariak hitza hartzen du eta **ANDONI SARASUA OLIDEN** jaunak, 2003ko maiatzaren 25ean izandako Udal-hauteskundeetan Orioko EAJ-PNV/EA koalizioaren zerrendan 5. hautagaia zen aldetik eta Orioko Udaleko zinegotzi hautetsi izendatua, Udalbatzarrari zuzendutako idatziaren berri ematen du. Idatzi horretan Orioko Udaleko Zinegotzi karguari uko egiten dio, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak onartutako Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiaren 9.4 artikulua ezarritakoaren arabera, arrazoi pertsonalak direla medio eta ezin duelako zinegotzi karguan jarraitu, eta beraz, eskatzen du onartua izan dadila uko egitea eta bere karguaren zinegotzi aldaketa, ekainaren 19ko Hauteskunde-Legedi Orokorraren 5/1985 Lege Organikoaren 182 artikulua eta Hauteskunde-Batzorde Zentralaren 1991ko ekainaren 19ko Tokiko Ordezkarikaren Karguen Aldaketaren gaineko Instrukzioaren arabera.

Era berean, Udalbatzarrak **AINHOA LEUNDA SAN SEBASTIAN** andreak, 2003ko maiatzaren 25ean izandako Udal-hauteskundeetan Orioko EAJ-PNV/EA koalizioaren zerrendan 11. hautagaia, aurkeztutako idatziaren berri jaso du, eta adierazten du **ONARTU** egiten duela Orioko Udalean EAJ-PNV/EA koalizioaren zinegotzi izendapena **ANDONI SARASUA OLIDEN** jaunaren ordezkari, Hauteskunde-Legedi Orokorraren Lege Organikoaren 182 artikulua eta Hauteskunde-Batzorde Zentralaren 1991ko ekainaren 19ko Tokiko Ordezkarikaren Karguen Aldaketaren gaineko Instrukzioaren arabera, eta **DEKLARATZEN DU** ez dagoela aipatu Hauteskunde-Legedi Orokorraren Lege Organikoaren 6, 177 eta 178 artikuluetan jasotako inongo hautagarri ezintasunen baten barne; hori guztia, Orioko Udaleko Zinegotzi hautetsi izaeraren egiaztagiria luzatu ahal izateko.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da, eta gaiari aplikagarri zaion eta indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera, gaia eztabaidatu ondoren, **AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (**10 BAI EZKO BOTO**), Udalbatza hamaika zinegotzik osatzen baitute, Udal honetako Udalbatzarrak honako hau **ERABAKITZEN DU**:



**1.- ONARTZEA ANDONI SARASUA OLIDEN** jaunak EAJ-PNV/EA koalizioaren aldetik Orioko Udaleko Zinegotzi karguari egin dion ukoa, eta **AINHOA LEUNDA SAN SEBASTIAN** andreak Orioko Udalean EAJ-PNV/EA koalizioaren zinegotzi izendapena onartzearen berri jaso izana, **ANDONI SARASUA OLIDEN** jaunaren ordeztuz.

**2.- IGORTZEA** akordio honen egiaztagiri literal bat Madrileko Hauteskunde-Legedi Orokorreko Lehendakariari, EAJ-PNV/EA koalizioaren aldetik Orioko Udaleko Zinegotzi hautetsi izaeraren egiaztagiria jaso dezan **AINHOA LEUNDA SAN SEBASTIAN** andrearen alde, **ANDONI SARASUA OLIDEN** jaunak uko egitea aurkeztu ondoren hutsik geratu den eta Udalbatzarrak onartu duen kargua; hori guztia aipatu Hauteskunde-Legedi Orokorrearen Lege Organikoaren 182 artikulua eta Hauteskunde-Batzorde Zentralaren 1991ko ekainaren 19ko Tokiko Ordezkaritza Karguen Aldaketaren gaineko Instrukzioaren arabera.

## **6. ESKARIAK ETA GALDERAK.**

Ez zen izan.

Horrenbestez, bilkurari amaiera ematen zaio, publikoan zeuden batzuk hitza hartu ondoren, eta erabakitakoa jasota gera dadin, nik, Idazkaria naizenez, akta hau egiten dut Alkatearen ontzat emanarekin.

**ALKATE-PRESIDENTEA**

**IDAZKARIA**